

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua gauzatzeko behar ditugun elementu garrantzitsuenak honela sailka ditzakegu: fisikoak, intelektualak, gizatiarrak eta finantzarioak.

## **Fisikoak**

Baliabide fisiko hauek erabiliko ditugu:

- Gasteizen kokatutako 500 m2 lonja bat. Lonja honetan hainbat bulego egongo dira bezeroekin hitz egiteko. Bestalde, hainbat gela izango ditugu psikologoak haien beharrak erantzuteko.
- Sare sozialak koordinatzeko ordenagailuak.
- Mahaiak, aulkiak eta dekorazio-elementuak.



## **Intelektualak**

Baliabide intelektual hauek erabiliko ditugu:

- Gure enpresaren marka erregistratuko dugu Patente eta Europako Marken erregistroan.
- Bezeroak lortzeko eta komunikazio-harremanak mantentzeko trebetasun komertzialak.
- Informazioa bidaltzeko, gure enpresan interesa duten bezeroen oinarri bat sortzeko ezagutzak.

## **Ekonomia- eta finantza-arlokoak**

Baliabide ekonomiko hauek erabiliko ditugu:

- Lehen inbertsioa 30.000 €-koa da, eta 5 bazkideen aurrezkietatik dator.
- Kutxabanken mailegua, negozio bat martxan jartzerakoan sortzen diren gastu nagusiei aurre egin ahal izateko.
- Laboral Kutxaren balizko finantzaketa gure negozioaren ekipamendua kudeatzeko, aseguruak, irudia, ekipamendu informatikoa, altzariak, etab.
- Gazte enpresaren balizko diru-laguntza 30 urtetik beherakoei negozio bat martxan jartzeagatik.



- Mikroenpresetan eta pertsona autonomoetan egindako inbertsioei finantza-laguntza emateko AFA programa. (Diruz lagun daitekeen inbertsioaren zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da gutxienez)

### **Gizakiak**

- **Sara:** lidergoaren ikuspegia ematen du eta enpresaren alderdi ekonomikoez eta enpresaren hazkundeaz arduratzen da.
- **Nagore:** finantza-erakundeekiko kudeaketaz eta psikologoezikiko harremanez arduratuko da.
- **Eider:** bere profilagatik, Eider webgunearen diseinuaz, sare sozialak eramateaz eta publizitatea sortzeaz arduratuko da.
- **Lucia eta Gari:** publikoa "Dead Party" kontzeptuaren barruan sartu eta jarraipena egingo dute.